

ANIMALIEN UGALKETA

Animaliek kumeak izateko duten **ahalmenari ugalketa** esaten zaio.

Ugaltze mota nagusiak **asexuala** eta **sexuala** dira.

Ugalketa **asexuala**, sexu ezberdineko animalien arteko **harremanik gabe** ugaltzea da. Adib. itsas izarra.



Ugalketa **sexuala**, arraren eta emearen arteko **harremana** ezinbestekoa denean.



Arrautzetatik jaiotzen diren animaliei **obiparoak** deitzen zaie, adib.: oiloak.




Emearen **sabeletik** jaiotzen direnei berriz, **bibiparoak**, adib.: Txakurrak.



GIZAKIEN UGALKETA



Gizakiak ugaztunak garela esaten dugu, amaren sabeletik jaiotzen garelako. Hori gerta dadin ezinbestekoa da emearen eta arraren arteko harremana izatea.



Txikitan ezinezkoa daukagu ugaltzea, hori gerta dadin **gorputzean** **aldaketa** batzuk gertatu behar dira. Aldaketa horiek gertatzen diren garaiari **pubertaroa** deitzen zaio.